

## Donostiarron ikusmiran

## 227 etxebizitza berri Bidebietan

**b**idebietako Kontadoreseko lantegi zaharra, behera bota eta 227 etxebizitza eraikiko dira bertan. Halaxe jakinarazi du Jorge Letamendia Hirigintza zinegotziak. Lantegi zaharrak ez du inongo erabilpenik izan duela hamar urtetik hona eta beraz, Udalak lurrera botatzea erabaki du. Hasierako asmoa merkatalgune bat eraikitzea zen arren, Udalak lur jabeekin hitz egin du eta azkenik, etxeak egingo dituz-



te lantegi zaharraren tokian. Kontadoreseko 227 etxebizitzeetatik 65 babes ofizialekoak izango dira eta 162 salmenta librean eskainiko dira. Udalaren egitasmoak bestelako aldaketak ere ekarriko ditu. Izan ere, berritze lanak N-1 errepidean beste bide bat egiteko aukera emango du. Bide honekin, errazagoa izango da Bidebietan kotxez sartzea. Kontadoreseko lanak bi hilabete barru hasiko dira.

## Tabernentzako araudia, mahai gainean

**U**dal Gobernuak mahai gainean utzi du tabernei buruzko araudia aldatzeko proposamena. Maria Jose Usandizaga Hirigintza Disziplina zinegotziak adierazi zuenez, aldaketa honen helburua Parte Zaharrean taberna berririk ez zabaltzea da, auzo honetan ostatu gehiegi dago eta. Hala eta guztiz ere, Udal Gobernuak ez zuen proposamena jorratu joan den asteartean, hilak 18, egindako bileran eta beraz, aurrerago helduko dio gaiari. Parte Zaharrean ezezik, San Bartolomen eta Errege Katolikoetan ere neurri bera ezar lezake Udalak.

## Zarautz hiribideko errotonda

**U**dalak errotonda bat egiteko asmoa du Zarautz hiribidean, Ernesto Gasco Trafiko zinegotziak adierazi duenez. Errotonda hau gaur egun gasolindegia eta kotxe garbilekua dauden tokian egingo da, Lorea ondoan eta Zapataritik oso gertu. Errotonda honekin Zarautz hiribidean dabil-tzan kotxeen trafikoa, batetik, eta Tolosa hiri-bidetik Amara-Ibaeta errepidean sartu nahi dutenena, bestetik, arindu nahi da. Horrekin batera, Zarautz hiribideko espaloiak zabaldu nahi ditu Udalak. Errotonda egiteko lanak urte amaieran hasiko dira.

DATUA

420

MILOI

## Autonomiako pasabidea, beranduago

Amara Zaharreko Autonomia kalea eta Morlans lotuko dituen pasabidea bukatzeko epea hilabetez luzatzea erabaki du Udal Gobernuak. Odon Elorza alkateak azaldutakoaren arabera, Euskotrenek espero baino beranduago eman du lanari ekiteko baimena eta beraz, lanak atzeratu egin dira. Hori dela eta, epea luzatzeko erabakia hartu dute gobernukideek. Jakina denez, pasabidea Amara Zaharreko auzotarren aspaldiko eskaera da. Pasabide hau trenbidearen gainetik joango da eta oinezkoek erabili ahal izango dute.



Igara eta Berio arteko errepidea egiteko lanek 420 milioi pezetako aurrekontua dute. Errepide berria Ibaetako campus atzealdetik joango da eta 471 metro luze izango da.

Berrikuntza honekin Tolosa hiribideko trafikoa gutxitu nahi da. Era berean, Berioko auzotarrei autopistara edo Amara-Ibaeta errepidera arinago sartzeko aukera eman nahi zaie.